

Gazteok gazteria eta herri diagnostikoa egin ostean iraultzari ekingo diogu

Betidanik, tipikoz eta topikoz beteta egon dira gazteoi buruzko diskurtsoak: drogazaleak, txoriburuak, errebeldeak, berekoiak, indibidualistak, sektarioak... Guztiak balio izan du gazteoi zelan, non eta zenbatetan bizi behar dugun, zelan, non eta noiz arte dibertitu behar garen eta zeri amen eta zeri ezezkoa eman behar diogun esateko. Jakina, gazteon ahotsa entzun gabe, gazteok kontuan hartu gabe.

Itzubaltzeta gaztetxeko eta gazte asanbladako dozenaka kideok ere proposamen pila izan dugu buruan herriko gazteoi aisialdirako zein borrokarako baliabideak emateko. Baina erakundeek ez bezala, hortik abiatzea akats larria litzatekeela konturatu ginen. **Gazteoi irtenbideak ematea gazte guztioi dagokigulako.** Horregatik, **2006ko maiatza, ekaina eta uztaila eman genuen** kalean, institutuan, lonjetan, plazetan, parkeetan eta tabernetan gazteei **galdetzen**. Guztira, genero, pentsamolde, koadrila eta adina ezberdinetako **162 gaztek erantzun zuten**. Kontrasterako, **20 auzokide heldu ere** elkarrizketatu genituen. Hona hemen esandakoaren laburpena:

1. Gazteen esanetan, Itzubaltzeta / Erromoko gazteen artean pasibotasuna garatuta egon arren, badago mugitzen dena, baina koadrila, talde politiko zein hiri-leinutan bananduta. Egoera horrekin batera inkomunikazioa ematen da, bai taldeen ezberdinen artean eta bai norbanakoen artean. **Gazte gehienek jotzen dute elkar ezagutza eta komunikazioa oinarrizko helburutzat.**
2. Gazteen gehiengoaren aburuz, **Getxoko Udalak ematen dituen kultur eta aisia zerbitzuak ez dituzte propioztat jotzen**, ez direlako parte hartzaileak eta batzuentzat garesti eta elitista direlako. Batzuek erabiltzen dituzte, eta zabaltzen dena baino gehiago dagoela diote, eta ekimen batzuk (Komiki Azoka, Getxo Arte...) ondo baloratzen dituzte. Publizitate gehiago, doako ekimenak, kontzertu aretoak, filmak, kontzertuak, lokal autogestionatuak, kirol esparruak, antzezlanak, euskal kultura, bidaiak merkeak, internet, ikasketa gelak, kirol eskaintza, barietatea, herriko jaiak

gaztetu eta gazteen esanetara jartzea eskatzen diote Udalari, batez ere asteburuei begira.

3. Jendarteari buruz, **gazteek kezka garritzat jotzen dituzte gatazka politikoa, kontsumoan eta indibidualismoan oinarritutako gizarte ereduak, lan behin-behinekotasuna eta langabezia, etxebizitza, inmigrazioa, txirotasuna, kutsadura eta droga.** Herriari dagokionez, etxebizitza, **parkingak eta TAO eta Udallerriak herri hau baztertzen duela** dira kezka nagusienak. Ondoren, Udalak dituen gazteentzako ekimen eta azpiegitura eza, kirol instalazio eza, zuhaitz eta berdeguneen falta, Getxoko alkatearen diktadura, langabezia, gaztetxeekiko jarrera, inoiz bukatzen ez diren herri lanak, gazteen arteko harreman txarrak, isunak eta gizarte kontrolera dedikatzen den Udaltzaingoa, denda txikien etorkizun beltza, soldata eskasak, langabezia, garraio publikoa, lonja gutxi daudela, asteburuetan ez dagoela inor kalean... dira aipatutako beste kezkak.
4. **Gazteek beraiek beraien kultur, gizarte eta aisia ekimenak autogestionatzeari ongi iritzi diote** gazteek, batzuek horrela izan behar duelako eta beste batzuek Udalaren eskaintza urria dela eta. Gutxiengo batek "gazteek esan eta Udalak egin" funtzionamenduaren alde egiten dute edo "diruz lagundutako autogestioaren" alde. **Gaztetxeak egin beharko lukeena**, gazteen arabera, honakoa: gehiengoaren arabera, **mota guztietako kultur eskaintza eskaini** (era guztietako kontzertuak, hitzaldiak, tailerrak, filmak, irteerak, kirol lehiaketak...). Horrekin batera, alderdikeriak alboratu, informazio politikoa eskaini, Udalak ematen ez duena eskaini, gazteon topagunea izan, herriko bizitza soziokulturaleko eragilea izan, euskara sustatu, komunikazioa eta euskal ohiturak suspertu, haurrentzako ekimenak, beste kulturak ezagutarazi, jaiak antolatu eta beste herrietako gaztetxeak ezagutarazi beharko luke gaztetxeak. Balorazioetan, **ondo baloratzen dute orain arte Itzubaltzeta gaztetxeak egindako lana** eta iritzi ona daukate zentroari buruz, **baina**, batzuen arabera, nahiz eta gaztetxekook hori nahi ez, **itxia izan daiteke bertan inplikaturik ez daudenentzat**. Horren arrazoiak: lotsa, kuadrila bertatik ez

pasatzea, beti musika mota berbera egotea, astean zehar lonja bat iruditzea, anarkistekin eta abertzaleekin identifikatzea, kartel politikoak egotea, eta giroa edo jende mota ezberdina topatzea izan daitezkeela diote gazteek. Gainera, baten batentzat gaztetxeak informazioa manipulatu du. Dena dela, **gazte gehienak Itzubaltzeta gaztetxetik pasatu dira, nahiz eta asko eta asko erabiltzaile papera baino ez duten jokatu**, kontzertuetan edo asteburuetan. Norbait bertan topatzea, hitzaldiak entzun edo besterik gabe jakinmina asetzea dira hortik pasatzeko beste arrazoiak. **Gehienek daukate gaztetxean egiten diren jardueren berri**, batez ere kalean eta lonjetan jarritako **kartelen bidez**, nahiz eta Udalaren aginduz Cespak egunero kendu. Ahoz ahokoa eta postontzietan banandutako orriak ere positiboki baloratzen dituzte. Dena den, **komunikazio hori handitzea beharrezko ikusten dute**, kartel gehiago eginez, aldizkari bat kaleratuz, kontzertuetan informazioa emanez, institutuko sarreran panelak jarriz eta azalduz, e-postaz, esku orrien bidez, tabernetan iragarritz, irratia erabiliz, webgune batez, inkesta gehiago eginez, edo ekintzak kalean burutuz.

5. **Auzokideen erdiak ondo ikusten du egungo herriko gazteria**, nahiz eta bere garaikoa baino pasiboagoa iruditzen zaion, beste erdiak kontsumista, alferra eta drogodependientetzat jotzen du. **Herriko aisialdi eta kultur eskaintzaren inguruan gehienek nahikoa ez dela esaten dute** eta faltan botatzen dituzte zinema filmak, antzezlanak, umeentzako zein nagusientzako gauza gehiago eta gazteentzako lokalak. Heren batek onartzen du ez duela ezagutzen eskaintza eta batzuentzat dagoena elitistatzat jotzen dute kritika gisa. **Udalaren jarrera negatiboa da ia guztientzat etxebizitza, tasak, berdegune eta parking-en alorretan. Gaztetxeari buruz, erdiak ezagutzen du egungo gaztetxea eta hiru laurdenak aldeko jarrera agertzen du.** Azken horien artean, batzuk Udalak diruz lagundu edo leku hobea eman beharko lukeela diote, beste batzuk onartzen dute bere babesa ez lukeela izango bere etxe ondoan egotekotan eta gehienek onartzen dute eraikina hobetu dela. Aurreko gaztetxe baten auzokideak ontzat jotzen du esperientzia. Gaztetxea kritikatzan dutenak ohitura dutela, bertan gauza arraroak egiten direla edo

Zarraoaren etxe ondoan egon beharko litzatekeela diote. Beste batzuei, berriz, berdin zaie. Dena den, batzuk izan ezik, beste guztiek aitortzen dute ez direla gaztetxean egon, nahiz eta gehiengoa prest dago sartzeko gustuko duen zer edo zer antolatzen badu. Dena den, batzuek nahiago dute gaztetxeak ekitaldiak kalean egitea.

Itzubaltzeta gaztetxearen proiektua 2004ko ekainaren 22an sortu zen, herriko makina bat gazteok herri osoari irekita egongo litzatekeen gazteon topagune aske, ez alderdikoia eta autogestionatua sortzeko asmoz, hutsik zegoen Santa Eugenia kaleko eraikin bat okupatu genuenean. Proiektua, indarrez lekuz aldatzen behartu bagintuzten ere, berbera da egun: gazteok batu eta norberaren inplikazioaren bidez, aisialdian, kulturen, sorkuntzan eta genero, hizkuntz, gizarte zein politika mailako borroketan eragilea izan eta alternatibak eskaini.

Baina proiektua ez da berez elikatzen, eta bertan parte hartzen dugun pertsonok ez daukagu EGK bat, moja talde bat edo benefizentzia elkarte bat bezala jarduteko asmorik, gazteoi guk ontzat ematen ditugun gauzak emanez. **Gure asmoa Itzubaltzeta / Erromo berritu eta iraultzeko lanabesak eskaintzea da**, gazte guztiok lanabes horiek nahi dugun eran moldatu eta gure lanez nahi duguna antolatzeko.

Hortaz, gaztetxean eta gazte asanbladan gabiltzanok **hainbat pausu emango dugu** bide horretan **guztion parte hartzea ahalbidetu eta errazteko**. Izan ere, arrazista, faxista, homofobo, misogino, lapurra, matxista edo horrelakorik ez den **edozeinentzat irekita egon behar dira Itzubaltzeta gaztetxeko eta gure herriko ateak**.

Horregatik, gazte oro eta hain gazte ez den jende guztia gonbidatuta dago datorren martxoaren 3an Itzubaltzeta gaztetxea eta Itzubaltzeta / Erromo eraldatzeko proposamenaren aurkezpena.

Bide horretan, martxoaren 3a baino lehen, egunean bertan zein ondoren **guztion ekarpenak jaso nahi ditugu, Itzubaltzeta gaztetxea eta Itzubaltzeta**

/ Erromo eraldatzeko alternatiba zabala, landua, parte hartzailea, askotarikoa eta gazte zein auzotar guztion arteko komunikazioan oinarritua izan dadin. Horretarako, hainbat bide daude: Itzubaltzeta gaztetxetik (Errekagane 1-5) igarotzea eta bertan ematea; bertara postaz bidaltzea; itzubaltzetagaztetxea@mundurat.net posta elektronikora bidaltzea; edo www.blogari.net/itzubaltzeta webgunean iradokizunak idaztea.

**Itzubaltzeta gaztetxea
Errekagane 1-5. 48930 Itzubaltzeta / Erromo
itzubaltzetagaztetxea@mundurat.net
www.blogari.net/itzubaltzeta**